E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com

Pokopandegi 11
Oficina 012
20.018 Donostia – San Sebastián

Oiartzungo Udal Kirol instalakuntzen azterketa ekonomikoa.

Oiartzungo Udala

2021ko uztaila



OIARTZUNGO KIROL INSTALAZIOEN AZTERKETA EKONOMIKOA

SARRERA

Oiartzungo kirol instalakuntzen kudeaketa kontratua 2021 amaitzen da eta Oiartzungo Udala kontratazio plegu berri bat argitaratzeko prozesuan murgilduta dago. Horretarako funtsezkoa da kirol instalakuntzei lotutako datu ekonomikoak jaso eta bideragarritasun plana zehaztea, kontratazio baldintzak definitzeko.

Aurreko kudeaketa kontratuak 2018, 2019, 2020 eta 2021 urteak bildu ditu. Bizi dugun pandemia egoeraren ondorioz, kontratuaren 2 ekitaldi, 2020 eta 2021 urteak, guztiz baldintzatuak suertatu dira. 2020 urtean instalakuntzen ixteak eta pairatutako murriztapenek instalakuntzen ustiapen kontuan eragin zuzena izan zuten. Bestalde, 2021 urtean, nahiz eta pandemiaren eboluzioak hobera egin duen, herritarren kirol ohiturak aldatuz joan dira, kirol instalakuntzen erabileran eta kirol jardueren kontratazioan eraginez.

Ziurgabetasun handiko testuinguru honetan, aurreikusteko zailak diren eta kirol instalakuntzen ustiapen kontuan eragin zuzena duten aldagaien bilakaerak markatuko ditu etorkizuneko kirol jarduera maila eta instalakuntzen ustiapen aukerak.

Azken urte hauetan aldagai horien bilakaera aztertuz etorkizunean izan dezaketen bilakaera aurreikusten saiatuko gara, beti ere datu eta irizpide objektiboetan oinarrituz.

AZTERKETAREN ATALAK

Egindako azterketak fase ezberdinak ditu. Azken emaitza, kirol instalakuntzen ustiapen kontuak hurrengo urteetan izango duen aurreikuspena azaltzea delarik. Horretarako, ondoko mugarriak bete dira:

1- **Ustiapen kontuaren azterketa.**
   Aurreko urteetan, 2018, 2019 eta 2020, kirol instalakuntzen ustiapen kontua osatzen duten partida ezberdinek izan duten bilakaera aztertu.

2- **Oinarrizko urtearen ustiapen kontua zehaztu.**
   0 urtea izendatuko dugun ekitaldiko ustiapen kontuaren aurreikuspena burutu. 0 urte horren ustiapen kontua zehazteko, berau osatzen duten gastu eta sarrera partiden bilakaera aztertuko da, bilakaera horri kirol arloko datuetan izandako bilakaera gehituz. Alegia, datu ekonomikoak eta instalakuntzen kirol jarduerari buruzko datuak uztartuz egingo da aurreikuspena. 0 urte hau, kontratu berriko lehen ekitaldiko (2022) ustiapen aurreikuspena izango da.

3- **Udal konpentsazioa zehaztu.**
   0 urteko ustiapen aurreikuspenak kontuan hartuta, enpresaren gastu orokorrak, irabazi marjina eta udalak egin beharreko konpentsazio kuotaren kalkulua burutu.

4- **Kontratuaren iraupeneko proiekzioa egin.**
   Udalak ustiapen partida ezberdinetan aurreikusten dituen bilakaerak kontuan hartuz hurrengo 4 urteetan ustiapen kontuak izan dezaken bilakaera zehaztu.


1. USTIAPEN KONTUAREN AZTERKETA

2018, 2019 eta 2020 urteetako ustiapen kontua ondokoa da:

DIRU SARRERAK

INGRESOS		2018	2019	2020
700.0	VENTAS	1.180,69	1.703,74	1.767,92
700.1	MAQUINAS VENDING	112,82	1.292,28	2.116,57
700.02	BAR	121.542,95	111.430,74	59.704,66
700.03	OBSEQUIOS	15,88		
705.00	ABONOS	722.142,23	726.622,82	530.369,30
705.01	MATRICULAS	8.740,98	7.611,40	4.099,35
705.02	CURSOS	134.063,54	139.220,06	84.618,28
705.03	ENTRADAS	38.638,13	40.742,76	28.443,58
705.04	BONOS	6.220,70	5.615,81	3.447,35
705.05	ALQUILERES	7.228,71	9.587,50	7.523,90
705.06	SERVICIOS	1.753,83	4.365,73	1.892,25
705.08	OTROS - GPA	1.542,97	972,82	681,70
705.2	SERV ACTIVIDADES DEPORTIV			623,42
705.34	OTROS			3.615,31
705.99	APORTACIÓN MUNICIPAL	155.000,04	155.000,04	108.159,36
778.01	ING EXTRAORDINARIOS APORT			147.227,66
	TOTAL INGRESOS	**1.198.183,47**	**1.204.165,70**	**984.290,61**

Instalakuntzen ustiapenak eragindako diru sarrerek bilakaera negatiboa izan dute 2019tik aurrera. 2020 ekitaldian diru sarrerak %18 murriztu dira, Udalak egindako aportazioa berezia kontuan hartuta. Aportazio berezi hori gabe, murrizketa %30ekoa izango litzateke.




GASTUAK

GASTOS		2018	2019	2020
600.0	PRODUCTOS PARA VENTA	58.765,23	56.560,01	36.124,24
602.0	PIEZAS DE REPUESTO	7.212,67	4.343,99	4.615,26
602.1	MATERIAL DEPORTIVO	2.927,22	4.302,50	549,44
602.2	PRODUCTOS DE LIMPIEZAS	4.259,92	4.837,08	5.143,17
602.3	MATERIAL OFICINA	7.095,39	464,89	691,13
602.4	PRODUCTOS QUIMICOS	8.512,58	9.229,77	6.597,50
602.5	ROPA TRABAJADORES	803,32	1.745,29	1.558,50
602.6	MATERIAL BOTIQUIN	383,87	326,69	297,48
602.7	MATERIAL MÉDICO	0,00	209,50	0,00
602.8	MOBILIARIO Y DECORACION	464,90	982,43	49,43
602.9	CONTROL DE ACCESOS	2.628,00	1.242,30	1.383,39
602.99	OTROS	2.464,08	1.692,75	1.514,01
607.0	SERV PROF INDEPENDIENTES	10.337,85	5.520,00	1.240,00
607.1	TRABAJOS REALIZADO OTRAS EMP	0,00	1.300,00	1.320,00
622.0	REPARACION Y CONSERVACION	6.775,60	8.447,61	16.324,76
622.1	MANTEN ACS Y CLIMATIZACION	1.639,16	800,00	87,80
622.2	SISTEMAS ANTIINCENDIO Y ALAR	2.064,74	3.859,26	3.281,40
622.3	MANTENIMIENTO ASCENSOR	681,67	1.837,80	2.447,11
622.4	LABORATORIOS	2.945,00	3.161,00	2.550,00
622.5	DESINFECCION, DESINFECTACI.	468,30	473,45	492,39
622.6	MANTENIMIENTO ZONAS VERDES			3.133,80
622.7	MANTEN INFORMATICO	2.463,05	3.389,30	1.842,95
622.9	FOTOCOPIADORA	635,99	1.209,09	546,36
622.10	SERVICIOS HIGIÉNICOS Y LIMP	327,60	334,82	342,22
622.12	RENTING MAQ FITNESS		8.190,24	8.190,24
622.13	RENTING VEHÍCULOS		1.008,39	3.889,83
622.14	MANTEN MAQUINARIA			1.325,00
622.99	OTROS	213,46		146,28
623.0	PREVENCION RIESG LABORALES	1.019,48	0,00	1.496,00
623.02	CERTIFICADO EUSKERA	72,67	0,00	
623.03	AUDITORIA	129,99		
624.01	PORTES	120,00	60,00	0,00
625.0	SEGURO RESP CIVIL + EMPLEADOS	1.195,77	0,00	351,58
625.1	SEGURO CONTENIDO Y CONTINENT	327,73		
626.0	SERV BANCARIOS Y SIMILARES	3.342,91	1.574,94	435,96
626.1	COMISIONES AVALES		0,00	2.099,92
627.1	PUBLICIDAD Y PROPAGANDA	2.660,78	3.373,95	985,20
628.0	ELECTRICIDAD	94.155,10	90.551,88	62.346,43
628.2	GAS	53.905,55	58.560,33	36.554,51
628.3	GASOIL		25,29	85,37
628.5	CONSULTORIA EFICIENCIA-ENERG		0,00	5.531,58
628.6	GASOLINA VEHÍCULOS		0,00	115,38
629.1	TELEFONO	1.309,05	1.185,89	1.323,60
629.2	GASOLINA	98,26	74,38	0,00
629.99	OTROS	944,62	93,29	0,00
631.0	OTROS TRIBUTOS	428,69	428,69	428,69
640.0	SUELDOS Y SALARIOS	618.392,95	571.758,10	618.392,95
642.0	SEGURIDAD SOCIAL EMPRESA	209.173,70	196.630,75	209.173,70
643.0	GEROA	3.147,01	3.061,95	3.147,01
644.0	FORMACION	2.850,00	2.850,00	2.850,00
678.0	GASTOS EXTRAORDINARIOS	6,60	0,00	76,00
678.2	AJUSTES GPA	951,73		
669.1	INTERESES POR DESCUBIERTO	0,69		
	TOTAL GASTOS	**1.118.302,88**	**1.055.697,60**	**1.051.077,57**

Urteko gastuak ere murriztu egin dira azken 3 ekitaldietan. Kasu honetan murrizketa 2019 ekitaldian eman da*. 2020 urtean 2019 gastu maila mantendu da. Eta gastuen murrizketa, sarreren murrizketa baino apalagoa izan da, %6 ingurukoa, urteko gastuen eta diru sarreren arteko arrakala handituz.

*Aipatzekoa, 2019 urtean langile gastuan murrizketa nabarmena izan dela baina 2020an berriro ere 2018ko baliora itzuli dela partida hau.



Diru sarrera eta gastu atalak osatzen dituzten partida ezberdinek izan duten bilakaera aztertu behar da, aurrerantzean izan dezaketen bilakaera aurreikusi eta gastu zein diru sarreren osotasunean izan dezaketen eragina era aurreikusteko.

DIRU SARREREN MURRIZKETA NAGUSIAK

2019 eta 2020 artean.

INGRESOS		2018	2019	2020	Murrizketa
705.06	SERVICIOS	1.753,83	4.365,73	1.892,25	57%
700.02	BAR	121.542,95	111.430,74	59.704,66	46%
705.01	MATRICULAS	8.740,98	7.611,40	4.099,35	46%
705.02	CURSOS	134.063,54	139.220,06	84.618,28	39%
705.04	BONOS	6.220,70	5.615,81	3.447,35	39%
705.03	ENTRADAS	38.638,13	40.742,76	28.443,58	30%
705.08	OTROS - GPA	1.542,97	972,82	681,70	30%
705.00	ABONOS	722.142,23	726.622,82	530.369,30	27%
705.05	ALQUILERES	7.228,71	9.587,50	7.523,90	22%

Diru sarreren zenbatekoan, pertzentilaz aparte, eragin handien izan duten murrizketak ondoko atalkoak dira: Taberna, Kirol jarduerak, abonamenduak eta sarrerak. Alegia, aktibitatearekin eta instalakuntzen erabilpenarekin harreman zuzena duten partidak.

GASTUEN MURRIZKETA NAGUSIAK

2019 eta 2020 artean. 2019 eta 2018 artean gertatu den murrizketa nagusia, eta ekitaldi horretan gertatu den murrizketa esplikatzen duena, langileen soldata eta gizarte segurantza partidetan eman da. 2020ean berriz, partida hauek 2018ko balioetara itzuli dira. Beraz, sarreren kasuan bezala, murrizketa nagusiak 2019 eta 2020 artean gertatu dira, nahiz eta sarreretan baino murrizketa apalagoak izan diren.

GASTOS		2018	2019	2020	Murrizketa
602.7	MATERIAL MÉDICO	0,00	209,50	0,00	100%
624.01	PORTES	120,00	60,00		100%
629.2	GASOLINA	98,26	74,38		100%
629.99	OTROS	944,62	93,29	0,00	100%
602.8	MOBILIARIO Y DECORACION	464,90	982,43	49,43	95%
622.1	MANTEN ACS Y CLIMATIZACION	1.639,16	800,00	87,80	89%
602.1	MATERIAL DEPORTIVO	2.927,22	4.302,50	549,44	87%
607.0	SERV PROF INDEPENDIENTES	10.337,85	5.520,00	1.240,00	78%
626.0	SERV BANCARIOS Y SIMILARES	3.342,91	1.574,94	435,96	72%
627.1	PUBLICIDAD Y PROPAGANDA	2.660,78	3.373,95	985,20	71%
622.9	FOTOCOPIADORA	635,99	1.209,09	546,36	55%
622.7	MANTEN INFORMATICO	2.463,05	3.389,30	1.842,95	46%
628.2	GAS	53.905,55	58.560,33	36.554,51	38%
600.0	PRODUCTOS PARA VENTA	58.765,23	56.560,01	36.124,24	36%
628.0	ELECTRICIDAD	94.155,10	90.551,88	62.346,43	31%
602.4	PRODUCTOS QUIMICOS	8.512,58	9.229,77	6.597,50	29%
622.4	LABORATORIOS	2.945,00	3.161,00	2.550,00	19%
622.2	SISTEMAS ANTIINCENDIO Y ALAR	2.064,74	3.859,26	3.281,40	15%
602.5	ROPA TRABAJADORES	803,32	1.745,29	1.558,50	11%
602.99	OTROS	2.464,08	1.692,75	1.514,01	11%
602.6	MATERIAL BOTIQUIN	383,87	326,69	297,48	9%

Gastuen zenbatekoan, pertzentilaz aparte, eragin handien izan duten murrizketak hornidurei dagozkienak dira: Gasa, elektrizitatea eta salmentarako hornidurak (taberna). Pandemiaren eraginez, instalakuntzen itxierarekin zerikusi zuzena duten murrizketak dira.

2. OINARRIZKO URTEAREN USTIAPEN KONTUA

Oinarrizko urtearen ustiapen kontua zehazteko, 2018 eta 2019 ekitaldietako kontuetatik abiatuta 2020 eta 2021 (lehen hiru hilabetea) ekitaldietan partidak ezberdinek izan duten bilakaera aztertu eta 2022 ekitaldian ustiapen kontua osatzen duten partida ezberdinen zenbatekoa aurreikusiko da.

Aurreikuspen hori egiteko, aipatu epean instalakuntzek izandako kirol jarduera datuak ere kontuan hartuko dira, hala nola, abonamendu zenbatekoaren bilakaera, sarrera kopurua edo eta kirol jarduera ezberdinetan parte hartu duen pertsona kopurua. Honek, kirol jardueraren bilakaeraren inguruko informazioa emango digu, azken finean, ustiapen kontua osatzen duten partida nagusiak kirol jarduera mailarekin estuki loturik agertzen bait dira.

Pandemiak bilakaera ezberdina agertzen duen heinean, kontuetan duen inpaktua ere aldatzen doa. Denbora igaro ala, pandemiaren eragina leuntzen joatea espero da, baina edozein kasutan, 2022 urtean pandemiaren indarra eta kirol instalakuntzen ustiapen kontuetan izango duen eragina aurreikustea zaila da.

Laburbilduz, sarrera eta gastu atalak osatzen dituzten partida guztiak aztertzen dira, pandemiak haiengan izan duen eragina azpimarratuz. Pandemiarekiko sentsibleagoak diren partiden inguruan aurreikuspen ariketa bat egin beharko da 0 urteko zenbatekoa zehaztu ahal izateko.

Aurreko atalean, 2020ean murrizketa altuenak jasan dituzten partidak identifikatu dira, bai sarreretan zein gastuetan. Partida hauen bilakaera aurreikusteko kirol datuekin gurutzatuko ditugu, alegia, 2020 kirol jarduera mailak partida hauengan izan duen eragina kalkulatuz eta 2021ko kirol jarduera datuak kontuan hartuta partida hauen bilakaera zehaztuz.

SARREREN AURREIKUSPENA

Aurreko atalean ikusi dugunez, diru sarreren zenbatekoan eragin handien izan duten murrizketak ondoko atalkoak dira: **Taberna, Kirol jarduerak, abonamenduak eta sarrerak**. Alegia, aktibitatearekin eta instalakuntzen erabilpenarekin harreman zuzena duten partidak pandemiarekiko sentsibleagoak agertzen dira.

Taberna

INGRESOS		2018	2019	2020	Murrizketa
700.02	BAR	121.542,95	111.430,74	59.704,66	46%

2020ko datuari instalakuntza itxia egon zen epeak eragin dio. Gutxi gora behera urtearen %25a instalakuntza itxia egon zen, aktibitaterik gabe. Tabernaren salmenta datua instalakuntzetara sartzen den jende kopuruarekin erlazioa duen aldagaia da, zeharka bada ere. Zenbat eta joan etorri gehiago tabernaren ustiapenak etekin hobeagoa emango duela pentsatzeko da.

Tabernaren salmenta datuak Elorsoro kiroldegiko sarrera datuekin gurutzatuz ondoko erlazioa agertzen da: 2020an tabernak %46 murrizketa jasan zuen salmentetan; 2020an, Elorsoro kiroldegiko sarrerak (bazkide + ez bazkideak) %43an murriztu ziren 2019 urtearekiko. Beraz, zeharka bada ere, partida honen bilakaeraren aurreikuspena egiteko baliagarria izan daitekeen erlazioa daukagu.

Epea	Elorsoro
2019 urtea	153130
2020 urtea	87649
Murrizketa	**43%**

Epea	Guztira
2019 - 1. hiruhilabetea	46485
2021 - 1. hiruhilabetea	31511
Murrizketa	**32%**

2021ko lehen hiru hilabeteko datuak kontuan hartuta, instalakuntzetara sarrera kopurua, 2019ko 1go hiru hilabetearekin alderatua, %32 jaitsi da. Bolumen jaitsiera hau urte osoko datuetara proiektatuko balitz, eta aurreko urtean bi aldagaiek agertutako erlazio berbera aplikatuz, tabernaren 2021 urteko salmentak 2019kiko %34 murriztuko lirateke. Alegia, **urteko diru sarrera zenbatekoa 73.544,29€** izango litzateke

111.430,74 – (111.430,74x0.34)= 73.544,29

Kirol jarduerak

INGRESOS		2018	2019	2020	Murrizketa
705.02	CURSOS	134.063,54	139.220,06	84.618,28	39%

Diru sarrera honek harreman zuzena du urtean zehar antolatu diren kirol jarduera eta bertan parte hartu duten pertsona kopuruarekin.

2020 urtean jardueretan parte hartu zuen pertsona kopurua, 2019 urtearekin alderatua, %42an murriztu zen. Honek jardueren bitartez lortutako diru sarreren %39ko murrizketa eragin zuen.

Epea	Guztira
2019 urtea	2423
2020 urtea	1402
Murrizketa	**42%**

Epea	Guztira
2019 - 1. hiruhilabetea	825
2021 - 1. hiruhilabetea	617
Murrizketa	**25%**

2021ko 1go hiru hilabeteko datuak kontuan hartuta, jardueren parte hartzeak %25eko beherakada izan du 2019ko 1go hiru hilabetearekiko. Beraz, jaitsiera hau urte osoko datuetara proiektatuko balitz, kirol jardueren bitartez lortutako diru sarrerak %23an murriztuko lirateke. Hots, **urteko diru sarrera 107.199,45€** izango litzateke.

139.220,06 – (139.220,06x0.23)= 107.199,45

Abonamenduak

INGRESOS		2018	2019	2020	Murrizketa
705.00	ABONOS	722.142,23	726.622,82	530.369,30	27%

Diru sarrera honek erlazio zuzena du instalakuntzak dituen abonatu / abonamendu kopuruarekin.

Alabaina, 2020ko diru sarreraren murrizketaren arrazoia, abonamendu kopuruaren jaitsieran baino, instalakuntzen itxieran aurkitzen dugu. Urteko batezbesteko abonamendu kopurua soilik %5a murriztu zen. Aldiz, diru sarrerak eten egin ziren instalakuntza itxia egon zen garaian (3 hilabete). Horrek esplikatuko luke %27ko murrizketa.

2021ko datua aurreikusteko ordea, abonamendu kopuruan oinarrituko gara.

Epea	Abonamenduak
2019 - 1. hiruhilabetea bb.	2336
2021 - 1. hiruhilabetea bb.	1920
Murrizketa	**18%**

1go hiru hilabeteko datuak kontuan hartuta, batezbeste, 2019ko 1go hiru hilabetean baino %18 abonamendu gutxiago ditu Elorsorok. Hortaz, urteko proiekzioa eginez, abonamendu kopuru hau mantenduko balitz, abonamenduen bitartez lortuko litzatekeen diru sarrera 2019ko zenbatekoa baino %18 baxuagoa izango litzateke**: 595.830,71€**

726.622,82 – (726.622,82x0,18)= 595.830,71

Sarreren salmentak

INGRESOS		2018	2019	2020	Murrizketa
705.03	ENTRADAS	38.638,13	40.742,76	28.443,58	30%

Diru sarrera honek erlazio zuzena du bazkide ez diren horiei saldu zaien sarrera kopuruarekin.

2020 urtean 2019 urtean baino %37 sarrera gutxiago saldu ziren. Honek esplikatuko luke partida honetan suertatu zen %30eko murrizketa.

Epea	Guztira
2019 urtea	5554
2020 urtea	3525
Murrizketa	**37%**

Epea	Guztira
2019 - 1. hiruhilabetea	1609
2021 - 1. hiruhilabetea	1212
Murrizketa	**25%**

2021ko 1go hiru hilabeteko datuak kontuan hartuta, sarrera salmenta kopuruak %25eko beherakada izan du 2019ko 1go hiru hilabetearekiko. Beraz, jaitsiera hau urte osoko datuetara proiektatuko balitz, kirol jardueren bitartez lortutako diru sarrerak %20an murriztuko lirateke. Hots, **urteko diru sarrera 32.594,21€** izango litzateke.

40.742,76 – (40.742,76x0,2)= 32.594,21

Gainontzeko diru sarrera partidak ustiapen kontuan duten inpaktua ez da hain esanguratsua. Kasu hauetan, 2019 eta 2020 urteetako balioen arteko zenbatekoa hartuko dugu aurreikuspen moduan. Beraz, oinarrizko urteko ustiapen kontuak, sarreren atalean, ondoko partidak jasoko lituzke:

INGRESOS		2018	2019	2020	0 URTEA
700.0	VENTAS	1.180,69	1.703,74	1.767,92	**1.735,83**
700.1	MAQUINAS VENDING	112,82	1.292,28	2.116,57	**1.704,43**
700.02	BAR	121.542,95	111.430,74	59.704,66	**73.544,29**
700.03	OBSEQUIOS	15,88			
705.00	ABONOS	722.142,23	726.622,82	530.369,30	**595.830,71**
705.01	MATRICULAS	8.740,98	7.611,40	4.099,35	**5.855,38**
705.02	CURSOS	134.063,54	139.220,06	84.618,28	**107.199,45**
705.03	ENTRADAS	38.638,13	40.742,76	28.443,58	**32.594,21**
705.04	BONOS	6.220,70	5.615,81	3.447,35	**4.531,58**
705.05	ALQUILERES	7.228,71	9.587,50	7.523,90	**8.555,70**
705.06	SERVICIOS	1.753,83	4.365,73	1.892,25	**3.128,99**
705.08	OTROS - GPA	1.542,97	972,82	681,70	**827,26**
705.2	SERV ACTIVIDADES DEPORTIV			623,42	**311,71**
705.34	OTROS			3.615,31	**1.807,66**
705.99	APORTACIÓN MUNICIPAL	155.000,04	155.000,04	108.159,36	
778.01	ING EXTRAORDINARIOS APORT			147.227,66	
	TOTAL INGRESOS	**1.198.183,47**	**1.204.165,70**	**984.290,61**	**837.627,19**

GASTUEN AURREIKUSPENA

Aurreko atalean ikusi dugunez, diru sarreren zenbatekoan eragin handien izan duten murrizketak ondoko atalkoak dira: **: Gasa, elektrizitatea eta salmentarako hornidurak (taberna).**

Gasa eta elektrizitatearen jaitsiera, instalakuntzen erabilpenarekin baino, itxiera epealdiaren eraginez gertatutako kontsumo jaitsieraren ondorioz gertatu da. Beraz, pentsatzekoa da instalakuntzen irekierarekin aurreko kontsumo balioak berreskuratuko direla.

Tabernaren kasuan, salmenta aurreikuspenarekin erlazioa duen partida da produktuen erosketarena.

Gasa

GASTOS		2018	2019	2020	Murrizketa
628.2	GAS	53.905,55	58.560,33	36.554,51	38%

Murrizketa honetan eragin handiena izan duen aldagaia instalakuntzaren itxiera epealdia izan da. Gogora dezagun 3 hilabetez guztiz itxita egon dela 2020 urtean. Beraz, zuhurtzia irizpidearekin bat, 0 urtean instalakuntzak bere ordutegi arrunta berreskuratuko duelakoan, gasaren kontsumoa ere 2019ko balioetara itzuliko da (gasaren prezioaren gora beherak ez dira kontuan hartzen).

Aurreikusitako balioa **58.560,33€ izango da.**

Elektrizitatea

GASTOS		2018	2019	2020	Murrizketa
628.0	ELECTRICIDAD	94.155,10	90.551,88	62.346,43	31%

Gasaren kasua bezalaxe, murrizketa hau eragin duen aldagaia instalakuntza irekia egon den ordu kopurua izan da. Beraz, zuhurtzia irizpiderekin bat, 0 urtean instalakuntzak bere ordutegi arrunta berreskuratuko duelakoan, elektrizitate kontsumoa ere 2019ko balioetara itzuliko da (elektrizitatearen prezioaren gora beherak ez dira kontuan hartzen, 2022 urteko tarifa aurreikustea ezinezkoa da).

Aurreikusitako balioa **90.551,88€ izango da.**

Taberna erosketak

GASTOS		2018	2019	2020	Murrizketa
600.0	PRODUCTOS PARA VENTA	58.765,23	56.560,01	36.124,24	36%

Kasu honetan, erosiko diren produktu kopurua salmenta kapazitatearekin erlazionatua egongo da. Aurreko atalean ikusi dugun moduan, tabernako salmentak 2019 urtearekiko %34ean murriztuko lirateke, egindako aurreikuspena kontuan hartuta. 2020ean murrizketa %46koa izan zen. Hau da, salmentak %46 murriztu ziren eta produktuen erosketa %36an. Beraz, bi aldagai hauen arteko erlazioari erreparatuz, salmentak %34 murrizten badira produktuen erosketak %27 murriztuko lirateke.

Aurreikusitako balioa **41.288,81€** =(56.560,01 – (56.560.01x0.27))

Nahiz eta langileen soldaten partida eta gizarte segurantzaren partida 2018 eta 2020ean balio altuenak agertu, Udalak egindako errebisioaren ondorioz errealitatera egokitzen diren balioak 2019koak direla erabaki da. Beraz, oinarrizko urtean kontuan hartuko diren balioak, kasu honetan, 2019koak izango dira.

Gainontzeko gastu partidak ustiapen kontuan duten inpaktua ez da hain esanguratsua. Kasu hauetan, 2019 eta 2020 urteetako balioen arteko zenbatekoa hartuko dugu aurreikuspen moduan. Beraz, oinarrizko urteko ustiapen kontuak, gastuen atalean, ondoko partidak jasoko lituzke:

GASTOS		2018	2019	2020	0 URTEA
600.0	PRODUCTOS PARA VENTA	58.765,23	56.560,01	36.124,24	**41.288,81**
602.0	PIEZAS DE REPUESTO	7.212,67	4.343,99	4.615,26	**4.479,63**
602.1	MATERIAL DEPORTIVO	2.927,22	4.302,50	549,44	**2.425,97**
602.2	PRODUCTOS DE LIMPIEZAS	4.259,92	4.837,08	5.143,17	**4.990,13**
602.3	MATERIAL OFICINA	7.095,39	464,89	691,13	**578,01**
602.4	PRODUCTOS QUIMICOS	8.512,58	9.229,77	6.597,50	**7.913,64**
602.5	ROPA TRABAJADORES	803,32	1.745,29	1.558,50	**1.651,90**
602.6	MATERIAL BOTIQUIN	383,87	326,69	297,48	**312,09**
602.7	MATERIAL MÉDICO	0,00	209,50	0,00	**104,75**
602.8	MOBILIARIO Y DECORACION	464,90	982,43	49,43	**515,93**
602.9	CONTROL DE ACCESOS	2.628,00	1.242,30	1.383,39	**1.312,85**
602.99	OTROS	2.464,08	1.692,75	1.514,01	**1.603,38**
607.0	SERV PROF INDEPENDIENTES	10.337,85	5.520,00	1.240,00	**3.380,00**
607.1	TRABAJOS REALIZADO OTRAS EMP	0,00	1.300,00	1.320,00	**1.310,00**
622.0	REPARACION Y CONSERVACION	6.775,60	8.447,61	16.324,76	**12.386,19**
622.1	MANTEN ACS Y CLIMATIZACION	1.639,16	800,00	87,80	**443,90**
622.2	SISTEMAS ANTIINCENDIO Y ALAR	2.064,74	3.859,26	3.281,40	**3.570,33**
622.3	MANTENIMIENTO ASCENSOR	681,67	1.837,80	2.447,11	**2.142,46**
622.4	LABORATORIOS	2.945,00	3.161,00	2.550,00	**2.855,50**
622.5	DESINFECCION, DESINFECTACI.	468,30	473,45	492,39	**482,92**
622.6	MANTENIMIENTO ZONAS VERDES			3.133,80	**1.566,90**
622.7	MANTEN INFORMATICO	2.463,05	3.389,30	1.842,95	**2.616,13**
622.9	FOTOCOPIADORA	635,99	1.209,09	546,36	**877,73**
622.10	SERVICIOS HIGIÉNICOS Y LIMP	327,60	334,82	342,22	**338,52**
622.12	RENTING MAQ FITNESS		8.190,24	8.190,24	**8.190,24**
622.13	RENTING VEHÍCULOS		1.008,39	3.889,83	**2.449,11**
622.14	MANTEN MAQUINARIA			1.325,00	**662,50**
622.99	OTROS	213,46		146,28	**73,14**
623.0	PREVENCION RIESG LABORALES	1.019,48	0,00	1.496,00	**748,00**
623.02	CERTIFICADO EUSKERA	72,67	0,00		
623.03	AUDITORIA	129,99			
624.01	PORTES	120,00	60,00	0,00	**30,00**
625.0	SEGURO RESP CIVIL + EMPLEADOS	1.195,77	0,00	351,58	**175,79**
625.1	SEGURO CONTENIDO Y CONTINENT	327,73			
626.0	SERV BANCARIOS Y SIMILARES	3.342,91	1.574,94	435,96	**1.005,45**
626.1	COMISIONES AVALES		0,00	2.099,92	**1.049,96**
627.1	PUBLICIDAD Y PROPAGANDA	2.660,78	3.373,95	985,20	**2.179,58**
628.0	ELECTRICIDAD	94.155,10	90.551,88	62.346,43	**90.551,88**
628.2	GAS	53.905,55	58.560,33	36.554,51	**58.560,33**
628.3	GASOIL		25,29	85,37	**55,33**
628.5	CONSULTORIA EFICIENCIA-ENERG		0,00	5.531,58	**2.765,79**
628.6	GASOLINA VEHÍCULOS		0,00	115,38	**57,69**
629.1	TELEFONO	1.309,05	1.185,89	1.323,60	**1.254,75**
629.2	GASOLINA	98,26	74,38	0,00	**37,19**
629.99	OTROS	944,62	93,29	0,00	**46,65**
631.0	OTROS TRIBUTOS	428,69	428,69	428,69	**428,69**
640.0	SUELDOS Y SALARIOS	618.392,95	571.758,10	618.392,95	**571.758,10**
642.0	SEGURIDAD SOCIAL EMPRESA	209.173,70	196.630,75	209.173,70	**196.630,75**
643.0	GEROA	3.147,01	3.061,95	3.147,01	**3.147,01**
644.0	FORMACION	2.850,00	2.850,00	2.850,00	**2.850,00**
678.0	GASTOS EXTRAORDINARIOS	6,60	0,00	76,00	**38,00**
678.2	AJUSTES GPA	951,73			
669.1	INTERESES POR DESCUBIERTO	0,69			
	TOTAL GASTOS	**1.118.302,88**	**1.055.697,60**	**1.051.077,57**	**1.043.893,54**

3. UDAL KONPENTSAZIOAREN KALKULUA

Oinarrizko urtearen ustiapen kontua osatzen duten partiden zenbatekoa aurreikusi eta gero, datu horien arabera, lizitazioan kontuan izan beharreko gastu orokorren zenbatekoa eta irabazi marjina kalkulatuko dira.

Hauek kalkulatzeko ustiapen kontuko gastu atala hartuko da kontuan.

0 urteko GASTUAK: 1.043.893,54€

GASTU OROKORRAK (%13): 1.043.893,54 * 0,13= 135.706,16€

ENPRESAREN IRABAZIA (%6): 1.043.893,54 * 0.06= 62.633,61€

GASTUAK GUZTIRA: 1.242.233,31€

AURREIKUSITAKO SARRERAK: 837.627,19€

USTIAPEN EMAITZA 0 URTEA: (837.627,19€ - 1.242.233,31€)**= -404.606,12€**

UDAL KONPENTSAZIOA: Ustiapen emaitzaren %55a: (404.606,12x0.55) **= 222.533,37€**

0 urtean aurreikusitako sarrerei udal konpentsazioa gehitzen bazaie, aurreikusitako gastuak baino zenbateko handiagoa lortuko litzateke. Saldoa 16.267,02€, sarreren aldekoa litzateke. Guzti hau, aipatu gastu orokorrak eta irabazi marjina kontuan hartu gabe, noski.

Pandemiaren eragina atzean geratu ala, pentsatzekoa da diru sarrerak pixkanaka pandemia aurreko balioetara iritsiko direla. Horrek ustiapen emaitza hobetuko luke eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko beharrezkoa den udal konpentsazioa gutxitzeko aukera egongo litzateke.

4. USTIAPEN KONTUAREN PROIEKZIOA

Ustiapen kontua osatzen duten gastu eta sarrera partiden bilakaera kontuan hartuz, kontratuaren iraupen epean zehar ustiapen emaitzaren bilakaera ondokoa izango da.

Oiartzungo Udalak gastu eta sarrera partidetan aurreikusten dituen aldaketa zehatzak jakitea beharrezkoa da proiekzioaren estimazioa egiteko. Edozein kasutan, ondoko hipotesietan oinarrituta, ustiapen kontuaren proiekzio ariketa egin da.

Diru sarreren eboluzioa: diru sarreren partida bi aldagaiek baldintzatzen dute bereziki, prezioen gora-beherak eta aktibitatearen handitzea. Proiekzio taulan bi aldagai hauekin jokatu dugu; batetik, hasierako bi urteetan diru sarreren gehikuntza prezioen %2 igoeratik etorriko da eta azken bi urteetan pandemia aurreko aktibitate bolumena berreskuratzetik etorriko da diru sarreren gehikuntza. Alegia, proiekzioko azken urtean 2019 diru sarrerak lortzea jarri da helburu, aurreko urteari tarteko balio bat ezarriz.

Udal Konpentsazioa: Proiekzio ariketa honetan 0 urteko udal konpentsazio maximoa konstante mantendu da urteetan zehar.

Gastuak: gastu partida guztiei %2 gehikuntza aplikatu zaie urtetik urtera. Aipatzekoa da, azterketan ikusi den moduan, 0 urteko gastu aurreikuspena pandemia aurreko gastu bolumenaren antzekoa dela. Alegia, diru sarrerak ez bezala, gastuek bere ohiko bilakaera berreskuratu dute.

	2020	0 URTEA	1 URTEA	2 URTEA	3 URTEA
DIRU SARRERAK	728.903,59	837.627,19	854.379,73	951.772,69	1.049.165,66
UDAL KONPENTSAZIOA	255.387,02	222.533,37	222.533,37	222.533,37	222.533,37
GASTUAK	1.051.077,57	1.043.893,54	1.064.771,41	1.086.066,83	1.107.788,17
DIFERENTZIA	**-66.786,96**	**16.267,02**	**12.141,69**	**88.239,23**	**163.910,86**

Ondorioz, egindako proiekzioaren arabera eta hurrengo 4 urteetako helburua pandemia aurreko aktibitate bolumena berreskuratzea izanik, 1. urtetik aurrera diru sarrerak eta gastuen arteko diferentzia positiboa handitzen doa ustiatzailearentzat.

Kontuan izan behar da, gastu orokorrak eta enpresaren irabazia soilik udal konpentsazioa kalkulatzeko erabili direla.